EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

JARDUNALDI TEKNIKOA

# EUSKADIKO UHOLDEAK

## –30 URTE GEROAGO–

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

**BILBAO 2013KO EKAINAREN 19A** ALHÓNDIGA BILBAO | AUDITORIOA

## AURKEZPENA



Inoiz, denboraren iragaite hutsak gure oroitzapenak lausoarazten ditu, esanahi berriak eransten dizkie, haien indarra aldarazten du edota, besterik gabe, iraungi egiten ditu. Ona izaten da, batzuetan, hala izatea, eta ez sentitzea izan zenaren oroitzapenari, gertatu zitzaigunaren gomutari lotuta beti. Baina oroitzapen askok berez galtzeko joera badute ere, eta esperientzia berriei lekua uzten badiete ere, bestetan herri-imajinarioak epikotasunez janzten du hain itzal sozial luzea izan zuten gertaeren oroitzapen kolektiboa.

Halaxe gertatu da duela 30 urteko abuztu hartan izan genituen uholdeen kasuan. Norberaren esperientzian ez ezik, imajinario partekatuan ere bizi da oroitzapena, eta hainbat urtetatik behin elkarrekin gogoratzera bultzatzen gaitu horrek. Hondamendi naturalaren munta, 34 heriotzak eta kalte material ugariak bestekoak izan ziren guztion artean partekatu zen elkartasun hura, sakrifikatzeko eta besteei emateko gaitasuna eta egoera gainditzeko gogoa. Faktore horiek batera jardun zuten 1983ko abuztuko jaiegun haiek, bat-batean eta ustekabean hondamendi bihurtuak, oroimen kolektiboan betiko zizelkatzeko.

Jardunaldi tekniko honen planteamendua ez da egun haietan gertatutakoak bakarka zein talde moduan nola eragin zigun gogoraraztea bakarrik; aitzitik, orduz geroztik egindako bidea analitikoki ibiltzeko aukera emango digun puntu analogiko bat ezartzea ere izango da. Azken 30 urteetan egin den guztia gogoratzea eta analizatzea, hain zuzen –ibaien inguru naturala leheneratzeko politiketan, antzeko arriskuak ekiditeko azpiegituretan egindako inbertsioetan, hondamendi-mailako ondorioak izan litzaketen fenomeno naturalak aurreikusteko izandako aurrerapen zientifiko-teknologikoetan eta, oro har, euskal gizarteak denbora horretan zehar larrialdiak kudeatzeko zerbitzu publikoen aurreikuspen-, antolamendu- eta koordinazio-zereginetan egin dituen aurrerapausoak–.

Orduko gertaeretako irudi biziak ikusiz gertatutako gauza batzuk gogoratzeak, beren erantzukizun politiko eta sozialetik lehen lerroan bertan bizi izan zituztenen kontakizuna entzuteak eta orduz geroztik egindako bidea analitikoki aztertzeak aukera emango digu gaur egun Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak, Larrialdien zuzendaritzaren, Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziaren eta Ertzaintzaren beren bitartez, egiten duen lana balioesteko.

**Estefanía Beltrán de Heredia**
**Segurtasuneko sailburua - Eusko Jaurlaritza**

## EGITARAUA

**08:30** **Akreditazioak.**

**09:00** Jardunaldiari hasiera emateko ekitaldia, **Josu Zubiaga Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuordearen** eta **Tomás del Hierro Bilboko Udaleko Hiritarren Segurtasun Saileko zinegotzia**ren eskutik.

**09:30** 1983ko uholdeak Euskadin. Gertaerak. Euskadik nola egin zion aurre hondamendiari.
Moderatzailea: **Josu Zubiaga. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuordea.**
- **Ricardo Olabegoya. Eusko Jaurlaritzako Babes Zibileko zuzendaria 1983an.**

**10:00** 30 urte geroago: larrialdi zerbitzu publikoen bilakaera Euskadin.
Moderatzailea:
- **José Antonio Aranda. Meteorologiako arduraduna. Euskalmet.**
- **José María Sáez de Galdeano. Uraren Euskal Agentzia. URA.**
- **Teresa Garmendia. Osakidetza-Emergentzietako zuzendari kudeatzailea.**
- **Pedro Anitua. Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaria.**

**11:00** **Atsedena.**

**11:30** Uholdeen eragina zenbait udaletan.
Moderatzailea: **Julian Beloki. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Komunikazio zuzendaria.**
- Eibar. **José Miguel Calle. Eibarko udaltzaingoaren buruzagia.**
- Bermeo. **Jon Ojanguren. Babes Zibila. Bermeoko Udala.**
- Laudio. **Emilio Monleón. Laudioko Udaleko Bide Ingeniaria 1983an.**
- Getxo. **Iñaki González. Getxoko Udaleko Babes Zibila.**

**12:30** Bilboko uholdeak.
Moderatzailea: **Andoni Oleagordia. Bilboko Udaleko Segurtasun saileko zuzendaria.**
- **Pedro Izaga. Bilboko Udaleko Babes Zibileko zuzendariordea.**
- **José Mari Amantes. Moskotarrak Konpartsa, Bilboko Udaleko Jaietako Batzordearen kidea 1983an.**
- **Juan Gondra. Bilboko Udaleko Osasun buruzagia 1983an.**

**13:30** Erakunde laguntzaile batzuen lana 1983ko uholdeetan.
Moderatzailea: **Javier Orduna. Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo saileko zuzendaria.**
- Bombers de Barcelona. **Joan Asín. Bombers de Barcelonako inspektorea.**
- Gurutze Gorria. **Ricardo Atilano. Bizkaiko Gurutze Gorria.**
- DYA. **Borja Vázquez. DYAko prentsa saila.**

**14:15** **Jardunaldiaren amaiera-ekitaldia.**




## On-line izen-ematea

www.aptb.org/inundaciones

DOAKO IZEN-EMATEA | LEKUA MUGATUA

EVENTO

IDAZKARITZA TEKNIKOA

APTB Av. Amaia, 2, 1º I. Edificio Inbisa. 48940. Leioa. Bizkaia | Tel.: 944 061 200 | Fax: 944 061 201 | suscripciones@aptb.org